

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Rosa Iturri Arrien

*Errigoiti,
Bizkaia
(1938-2025)*

Aurkibidea



Biografia



Errigoitiko Zabale auzoko Zabalbeazkoa baserrian jaio zen 1938ko ekainaren 14an. Gurasoak ere errigoitarrak zituen. Ama, Klaudia Arrien Garai, Zabalbeazkoa baserriko oinordekoa, erlijioak pisu handia zeukan familia batekoa. Aita, Antonio Iturri Erezuma, Errigoitiko Uria auzoko Antzuene baserrikoa, ezkondu aurretik Ameriketara 7 urte egindakoa, soinu jotzen eta idi-probetan bere anaia Leonekin ibili zalea.

Maria Rosa oso buruargia izan zen txiki-txikitatik. Irakurzale amorratua eta oso kantari ona. Sei urte zitueneko, dotrina osoa zekien buruz. Hamahiru urterekin Gernikako moja karmeldarren barnetegira eraman zuten ikasketak egiteko, eta hantxe burutu zituen Komertzio ikasketak. Gero Bilboko bulego batean jardun zuen kontabilitate eta idazkari lanetan ezkondu arte. Bilbora ezkondu zen eta hantxe jaio ziren lau seme-alabak. Gero Mungiara aldatu zuten bizilekua. Sarritan joaten zen bere seme-alabekin Errigoitiko bere jaiotetxeko baserrira, hainbeste maite zituen guraso eta neba-arrebenera. Bertakoak dira pasarte hauetan jasotako irudiak.

Zintak

EGT-013

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 2 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

EGT-014

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Data:**
- **Iraupena:** 1 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elorriaga Iturri, Yolanda
- **Emalea:** Elorriaga Iturri, Yolanda

Pasarteak

1. Jesusen Bihotza eta senar-emazteak

- **Erref:** EGT-013/001
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Gizona kexatu egiten da andreak Jesusen Bihotzaren irudiari (argi eta guzti ipinita daukanari), berari baino kasu gehiago egiten diolako. “Harek defendiduko dau!” esaten du ironiaz. Maria Rosak berak ere etxean Jesusen Bihotzaren irudia daukala erantzuten dio. Orduan gizonak Maria Rosari: “Ai, zu be holan, haren lez??” Eta Maria Rosak erantzun: “Zelan guruzu (gura dozu) ba, inpernuko demoniñoagaz joatie guruzu (gura dozu), ala??”. Baina gizonak kexaka jarraitzen du, bere emazteak Jesusen Bihotzaren irudiari berari baino hobeto atendidu eta dena aldrebez egiten diolako, “ea zer egingo dauan berak andreagaz “dio (Pasartean Maria Rosa Iturri Arrienen Errigoitiko euskararen aberatsa ederto baten ikusten da.“Ha dau (dago) egotekoa!” moduko esamolde eder-ederrak gure Bizkaiko euskararen altxorren ezaugarri dira.) Bitartean andreak senarrari buruz: “Arregleko da, gure (gura) badeu (badau)!” esaten du.</p>

2. Karta jokoan etorria eukitea zer den

- **Erref:** EGT-014/001
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:34

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Karta jokoan etorria eukitea (“etorridxe eukittie” Errigoitiko eran), kartak ondo etortzea da, (jokoan zehar karta onak eukitea).</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com